

Euskal administrazioetako diru-sarrerak %4,2 gutxitu ziren 2008an


2008ko abenduaren 31n finantza-zorra 2.926 miloi euro ziren, BPGren %4,3.

Euskal Administrazioek (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udal administrazioak, euren erakunde autonomoekin eta udalez gaindiko eta azpiko erakundeekin batera) -542,2 milioi euroko ez-finantzaketako aurrekontu-saldoa izan zuten 2008an, Eustatek landutako datuen arabera. 1996tik izandako serie positiboa hausten du.

Saldo negatiboaren arrazoiak ez-finantzaketako sarrera eta gastuen bilakaera ezberdinak dira. 2007ren aldean sarrerak %4,3 jaitsi ziren, eta gastuak %9,7 hazi. Gastuen hazkundea 2007koaren azpitik dago, ia puntu bat, baina zerga-sarrerak asko jaitsi dira (%-6,4), eta horrek argitzen du zergatik pasa den positibotik saldo negatibora; izan ere, aurreko urteetan zerga-sarrerak %10 inguru hazten ziren.

Zerga-sarrera gehienek (sarrera arrunten %87,6) aldakuntza-tasa negatiboak izan zituzten urtean. Jaitsierarik handiena Sozietateen zergan izan zen, 2007ko 2.046,7 milioietatik 2008ko 1.708,9etara (%-16,5). BEZean, sarrerak 2007ko 4.852,7tik 2008ko 4.208,3ra joan ziren, beti ere milioi eurotan (%-11,3). Zerga Bereziak eta Udal Zergetan jaitsierak apalagoak izan ziren, %2,7 eta %1,1.

1. grafikoa. Euskal administrazioen zerga sarreren banaketa. 2008 urtea (%)



Iturria: EUSTAT. Sektorre publikoaren aurrekontuen estatistikak

Berriz, PFEZgatiko (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) sarrerak %4,7 hazi dira; halere, aurreko urteetan %10 hazten zen.

Gastuaren aldetik, ez-finantzetaiko atal guztiek aldakuntza-tasa positiboak izan zituzten. Pertsonal-gastuak %7,5 hazi ziren, aurreko urtean baino 3 hamarren gutxiago; gainerako gastu arruntak %10 inguru hazi ziren. Kapital-eragiketetan, inbertsioek izan zuten hazkunderik apalena, %2.

Sarrera arruntak %4,2 jaitsi ziren, gastu arruntak %9,7 hazi; guztira, 2008ko gastu arruntaren saldoa positiboa izan zen, baina 2007koaren aldean %49,4 txikiagoa. Gehitzen bada kapital-eragiketen saldo negatiboa, ez-finantzetaiko aurrekontu-saldoa negatiboa da, 542,2 milioi; BPGren %0,8.

Euskal Administrazioen likidazio finkatua. 2008-2007

mila euro	2.007	2.008	Δ%
SARRERAK GUZTIRA	16.420.090	16.181.125	-1,5%
Eragiketa Arruntak	15.974.866	15.308.586	-4,2%
-Zerga Sarrerak	14.340.706	13.416.823	-6,4%
PFEZ	4.439.897	4.648.560	4,7%
Sozietate-zerga	2.046.705	1.708.884	-16,5%
BEZ	4.852.690	4.280.279	-11,8%
Zerga Bereziak	1.520.359	1.478.679	-2,7%
Udal-zergak	659.243	651.712	-1,1%
Bestelako Zergak	821.813	648.709	-21,1%
-Bestelako sarrera arruntak	1.634.160	1.891.763	15,8%
Kapital-eragiketak	286.322	259.656	-9,3%
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	16.261.188	15.568.242	-4,3%
Finantza-eragiketak	158.902	612.883	285,7%
GASTUAK GUZTIRA	15.413.989	16.739.868	8,6%
Eragiketa Arruntak	12.224.007	13.411.726	9,7%
Langileria Gastuak	3.036.579	3.265.489	7,5%
Transferentzia Arruntak	4.735.966	5.242.693	10,7%
Bestelako Gastu Arruntak	4.451.462	4.903.544	10,2%
Inbertsioak eta Kapital-eragiketak	2.455.336	2.698.674	9,9%
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	14.679.343	16.110.400	9,7%
Finantza-eragiketak	734.646	629.468	-14,3%
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	3.750.859	1.896.860	-49,4%
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZARIOA	1.581.845	-542.158	-134,3%

Iturria: EUSTAT. Sektoze publikoaren aurrekontuen estatistikak

Euskal Administrazioetako zor bizia 2.926,3 milioi ziren 2008ko abenduaren 31n. Azken ekitaldi horretan 338,6 milioi zor amortizatu eta pasibo berriak 551,7 milioi izan ziren, 2007an baino %27 gehiago; izan ere, administrazio guztiek (Eusko Jaurlaritzak, Foru aldundiek, udalek) mailegu berriak hartu zituzten.

BPGrekiko zorra 2007ko %4,1etik 2008ko %4,3ra joan da.

Euskal Administrazioen datu finkatuak. 2008. urtea

mila euro

	GUZTIZKO BATERATUA	KOJAURL.	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SARRERA ARRUNTAK	15.308.586	8.363.590	2.481.791	7.962.292	4.794.835
GASTU ARRUNTAK	13.411.726	7.800.751	2.349.378	7.192.024	4.364.786
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	1.896.860	562.839	132.413	770.268	430.049
KAPITAL SARRERAK	259.656	84.683	36.948	204.941	167.359
KAPITAL GASTUAK	2.698.674	1.241.727	256.833	829.255	605.677
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZIARIOA	-542.158	-594.205	-87.472	145.954	-8.269
ZOR BIZIA (Amortizatzeke 08-12-31)	2.926.329	1.266.900	219.251	1.001.506	438.672

Iturria: EUSTAT. Sektoze publikoaren aurrekontuen estatistikak

2008an Euskal Administrazioak 1.085 erakunde ziren. Euskal Administrazioen zerbitzuko pertsonak, 110.508, 2007an baino %4,1 gehiago; haien artean, %70,1 erkidegoko administrazio orokorrekoak ziren; %9,2 foru administrazioetan ari ziren eta gainerako %20,7 administrazio lokaletan. Enplegu-harremanaz, %69,0 langile finkoak ziren.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: José Javier Aramburu

Tel:+34-945-01 75 80 Faxe:+34-945-01 75 01

EUSKAL AEko SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUEN ESTATISTIKEI BURUZKO PRENTSA-OHAR GEHIAGO

EUSKAL AEko SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUEN ESTATISTIKEN GAINEN DATU-BANKUA